Kontratuen erregistroa 2024ko otsailean

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2024ko otsailean 40.091 pertsona kontratatu dira, joan den urteko otsailean baino 2.500 gehiago (% 6,7ko gorakada). Urtarrilarekin alderatuta, aldiz, murriztu egin da kontratatutako pertsonen kopurua; 4.051 pertsona gutxiago kontratatu dira,% 9,2ko beherakada, hain zuzen ere.

• SEXUA

Hilabete honetan 19.732 gizonezko eta 20.359 emakumezko kontratatu dira. Aurreko urteko datuarekin alderatuta, bai emakume zein gizonen kontratazioa hazi egin da; gizonezkoen kasuan hazkundea txikiagoa da, % 6koa hain zuzen ere (+1.113 gizonezko) emakumezkoen % 7,2ko gorakadaren aldean (+1.387). Hil arteko konparaketan apur bat gutxiago murriztu da kontratazioa gizonen kasuan: % 9ko beherakada, emakumeen % 9,4aren aldean (- 2.035 gizon eta -2.016 emakume).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 36,42 da, eta baxuagoa da gizonena (36,17) emakumezkoen aldean (36,67). Gipuzkoakoa dira kontratatutako pertsona gazteenak (36,02), eta Bizkaikoak, aldiz, zaharrenak (36,71).

Kontratatutako langile gazteenak, batez beste, laguntza teknikariak dira; horien batez besteko adina 32,83 urtekoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza lanetan kontratatutakoak dira; batez besteko adina 44,55ekoa da. Lanaldi partzialean kontratatutakoak lanaldi osoan kontratatutakoak baino gazteagoak dira (35,20 eta 37,10 urte, hurrenez hurren). Aldea haundiagoa da sexuaren arabera; lanaldi partzialeko emakumeak zaharragoak dira 36,02 urte baitituzte gizonezkoen 33,58aren aldean. Kontratuaren iraupenaren inguruan, aldi baterako kontratatutako pertsonak eta kontratu mugagabeak izan dituztenak adin oso antzekoa daukate (36,43 vs 36,41).

• JATORRIA

2024ko otsailean kontratatutako pertsonen % 20k atzerriko nazionalitatea dute; joan den urtekoa baino 0,8 puntu gehiago. Kontratatutako pertsona atzerritarren % 54,6k Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, % 14k Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, % 9,4k Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialderen batekoa, % 7,5ek Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batekoa, % 6,8k Europako Erkidegoko herrialderen batekoa eta, azkenik, % 6,6k Asiako herrialderen batekoa. Bertakoak atzerritarrak baino zaharragoak dira; 36,45 eta 36,33 urte, hurrenez hurren. Kontratazio-bolumen esanguratsua duten atzerritarren artean, Afrika iparraldekoak dira gazteenak (35,26 urte) eta Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batekoak, zaharrenak (38,46 urte).

Azken hilabetean, kontratazio-maila esanguratsua duten jatorri guztietako pertsonen kontratazioak egin du behera, Europar Erkidegotik etorritakoen artean izan ezik; jatorri honetako pertsona 1 gehiago kontratatu da (% 0,20ko hazkundea) . Balio absolutuetan gehien murriztu den pertsona-taldea Latinoamerikakoa da: 389 pertsona gutxiago kontratatu dira eta % 8,1eko murrizketa izan dute; balio erlatiboetan, berriz, beherakadarik handiena Saharaz hegoaldeko herrialderen batetik etorritakoen taldeak jasan du, % 11 jaitsi baitira (-93 pertsona).

Urte arteko bilakaeran, nabarmen egin du gora Latinoamerikako pertsonen kontratazioak: % 17,9 igo da, eta 666 pertsona gehiago kontratatu dira. Talde hori da gehien hazi dena, bai balio absolutuetan, bai erlatiboetan. Aldiz, balio absolutuetan gehien jaitsi den taldea Saharaz azpiko Afrikatik etorritakoena izan da (-33 pertsona eta % 4,2ko jaitsiera); balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena Europar Batasunetik kanpoko Europatik etorritakoena izan da (-%4,3, 27 pertsona gutxiago).

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 41,2k oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, % 22,8k batxilergoko ikasketak egin ditu, % 18,3k unibertsitatekoak eta % 17,1ek LHko ikasketak.

Hileko erreferentzian, jaitsi egin dira ikasketa-profil guztietako pertsonen kontratuak. Balio absolutuetan, gehien murriztu den profila uderrigorrezko ikasketena da, 1.138 pertsona gutxiago kontratatu baitira urtarrilaren aldean (% 6,5eko beherakada ehunekotan); balio erlatiboetan, LHko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioa murriztu da gehien (-% 12,2, 954 pertsona gutxiago).

Urteko erreferentzian gora egin du ikasketa-profil guztietako kontratatutako pertsonen kopuruak, unibertsitateko ikasketena izan ezik, 411 pertsona gutxiago kontratatu baitira (% 5,3 gutxiago). Gorakadarik handiena, bai kopuru absolutu zein erlatiboetan, batxilergoko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatu da, 1.246 pertsona gehiago eta % 15,8ko hazkundearekin.

KONTRATUEN KOPURUAK

2024ko otsailean zehar kontratazio kopurua 55.986 izan da EAEn, horietatik 14.321 (% 25,6) mugagabeak izan dira. Balio handia izaten jarraitzen du da azken urteetako bilakaerarekin alderatuta eta urtarriletik 0,5 puntu hazi da portzentaia; aitzitik, iazko otsailetik 1,7 puntutan murriztu da. Datu honek, 2022ko joera berresten du eta esan daiteke iaz onartutako lanerreformak ekarri duen kalitate handiagoko kontratazioren islada dela. Kontratu mugagabea izan duten gizonezkoen kopurua haundiagoa da emakumezkoen aldean (% 28,2 eta % 23,2 hurrenez hurren).

Kontratazioa % 6,3 murriztu da aurreko hilabetearekiko (3.756 kontratu gutxiago). Aurreko urtearekin alderatuta, hazi egin da kontratu kopurua; % 10,9 eta 5.495 kontratu gehiago.

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, kontratazioak behera egin du jarduera gehienetan. Jaitsiera nabarmenenak osasun-jardueretan (-1.607), manufaktura-industrian (-1.311) eta merkataritzan (-1.066) eta izan dira. Igoerarik handienak, aldiz, administrazio jardueretan (+791) eta informazio eta komunikazioan (+630) izan dira.

Iazko datuekin alderatuta, kontratazioak gora egin du jarduera gehienetan. Igoerarik nabarmenenak profil hauen kontratazioan ematen dira: administrazio jarduerak (+2.043), informazioa eta komunikazioa (+1.507) eta merkataritza (+619). Jaitsiera handiena izan duten jarduerak, aldiz, eraikuntza (-269) eta etxeetako jarduerak (-131) izan dira.

• OKUPAZIOA

Hil arteko bilakaerari dagokionez, kontratazioak behera egin du okupazio guztietan, honako bi hauetan izan ezik; teknikari zientifikoen profilean (1.413 kontratu gehiago eta % 14,9ko hazkundea) eta lehen sektoreko kualifikatuen profilean (+35 kontratu, +% 20 hazkundea). Kontratazioak, balio absolutuetan, kualifikaziorik gabekoetan egin du behera gehien, 1.860 kontratu gutxiago egin baitituzte (% 12,5eko jaitsiera). Beherakada handiena, balio erlatiboetan, zuzendaritza-profileko kontratuetan gertatu da, % 33,5ko beherakada eta 56 kontratu gutxiago erregistratu baitira.

Iazko otsailaren aldean, kontratazioak gora egin du okupazio guztietan, zuzendarietan (-39 kontratu, -%24,2 beherakada) eta industriako kualifikatuetan (-423 kontratu, -%12,5 beherakada) izan ezik. Hazkunderik handiena, bai balio absolutu zein ehunekoetan, teknikari eta profesional zientifikoek izan dute, % 40ko hazkundea eta 3.117 kontratu gehiagorekin.

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, aurreko hilabeteetan bezala, kontratu mugagabeen portzentaia handia nabarmendu behar da, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi baitziren. Tasa horiek ohikoak dira lan-erreformaren ondoren. Badirudi kontratu mugagabeen sendotasuna handitzea dakarrela, izan ere, historikoki, urtean zehar kontratu mugagabeen kopuru esanguratsu bat sinatu arren, ez zuten lortzen aldi baterako kontratua zuten okupatuen kontratu-harremana finkatzea.

2024ko otsailean sinatutako kontratuen % 35,4 lanaldi partzialekoak dira, % 46,1 emakumeen kasuan eta % 23,8 gizonenan. Kontratazio mota horren arazorik handiena da, gehienbat, nahigabekoa dela, eta agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanaren kalitate eskasa. Kontratu mugagabeen % 33,5 lanaldi partzialekoak dira.

Honako hauek dira lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak: ostalaritza (% 70,5), beste zerbitzuak (% 54,2) eta hezkuntza (% 48,6). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioan ehuneko handiena izan duen profila zerbitzuetako langileena izan da (% 56,5), eta gutxiena, lehen sektoreko kualifikatuak (% 5,7).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoei dagokionez, sinatutako kontratuen lanpostuen % 20,2 Araban dago, % 49,7 Bizkaian eta gainerako % 30,1 Gipuzkoan.

Hilabete honetan, Araban 31 kontratu gehiago sinatu dira (% 0,3ko igoera), igoera izan duen lurralde bakarra da; Gipuzkoan 1.531 kontratu gutxiago sinatu dira (% 8,3ko beherakada) eta, Bizkaian, azkenik, 2.265 kontratu gutxiago egin dira (-%7,5).

Iazko datuekin alderatuta, Araban 2.128 kontratu gehiago sinatu dira (% 23,2ko igoera), lurralde hau da igoera handiena izan duena balio erlatiboetan; Bizkaiann, berriz, % 11,6 hazi da (2.894 kontratu gehiago); Gipuzkoan, azkenik, 473 kontratu gehiago sinatu dira, hau da, % 2,9ko gorakada.

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

2024ko otsailean sinatutako kontratuen % 24,4 aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, kontratuen % 32,1 horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen % 16,9 bakarrik egin du ABLE batek.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak % 3,6 jaitsi dira; 2023ko otsailarekin alderatuta, % 28,6 hazi dira.



Kontratuen erregistroa 2024ko otsailean

		Ots-2024	Urt-2024	Ots-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	14.321	15.000	13.797	-679	-4,53	524	3,8
	Aldi baterakoa	41.665	44.751	36.694	-3.086	-6,90	4.971	13,5
	Guztira	55.986	59.751	50.491	-3.765	-6,30	5.495	10,9
	Mugagabeen %	25,6%	25,1%	27,3%	0,48		-1,75	
Sexua	Gizona	26.853	28.469	24.347	-1.616	-5,68	2.506	10,3
	Emakumea	29.133	31.282	26.144	-2.149	-6,87	2.989	11,4
	Guztira	55.986	59.751	50.491	-3.765	-6,30	5.495	10,9
	Emakumeen %	52,0%	52,4%	51,8%	-0,32		0,26	
Mugagabea	Gizona	7.571	8.094	7.202	-523	-6,46	369	5,1
	Emakumea	6.750	6.906	6.595	-156	-2,26	155	2,4
	Guztira	14.321	15.000	13.797	-679	-4,53	524	3,8
Aldi baterakoa	Gizona	19.282	20.375	17.145	-1.093	-5,36	2.137	12,5
	Emakumea	22.383	24.376	19.549	-1.993	-8,18	2.834	14,5
	Guztira	41.665	44.751	36.694	-3.086	-6,90	4.971	13,5
Guztira	Gizona	26.853	28.469	24.347	-1.616	-5,68	2.506	10,3
	Emakumea	29.133	31.282	26.144	-2.149	-6,87	2.989	11,4
	Guztira	55.986	59.751	50.491	-3.765	-6,30	5.495	10,9
Mugagabeen tasa	Gizona	28,2%	28,4%	29,6%	-0,24		-1,39	
	Emakumea	23,2%	22,1%	25,2%	1,09		-2,06	
	Guztira	25,6%	25,1%	27,3%	0,48		-1,75	
Lanaldi partziala	Mugagabea	4.798	4.549	4.598	249	5,47	200	4,3
	Aldi baterakoa	15.018	16.803	13.320	-1.785	-10,62	1.698	12,7
	Beste batzuk	36.170	38.399	32.573	-2.229	-5,80	3.597	11,0
	Guztira	55.986	59.751	50.491	-3.765	-6,30	5.495	10,9
	LP tasa	35,4%	35,7%	35,5%	-0,34		-0,09	
Lanaldi partziala	Gizona	6.397	7.001	5.726	-604	-8,63	671	11,7
	Emakumea	13.419	14.351	12.192	-932	-6,49	1.227	10,1
	Guztira	19.816	21.352	17.918	-1.536	-7,19	1.898	10,6
	Gizonen tasa	23,8%	24,6%	23,5%	-0,77		0,30	
	Emakumeen tasa	46,1%	45,9%	46,6%	0,18		-0,57	
	Tasa guztira	35,4%	35,7%	35,5%	-0,34		-0,09	
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	75	111	28	-36	-32,43	47	167,9
	Beste batzuk	55.911	59.640	50.463	-3.729	-6,25	5.448	10,8
	Guztira	55.986	59.751	50.491	-3.765	-6,30	5.495	10,9
	Prestakuntzakoak (%)	0,1%	0,2%	0,1%	-0,05		0,08	
L. historikoa	Araba	11.305	11.274	9.177	31	0,27	2.128	23,2
	Bizkaia	27.837	30.102	24.943	-2.265	-7,52	2.894	11,6
	Gipuzkoa	16.844	18.375	16.371	-1.531	-8,33	473	2,9
	EAE	55.986	59.751	50.491	-3.765	-6,30	5.495	10,9
Gizonak	Lehen sektorea	392	340	403	52	15,29	-11	-2,7
	Erauzketa-industriak	16	8	7	8	100,00	9	128,6
	Manufaktura-industriak	5.478	6.387	5.436	-909	-14,23	42	0,8
	Energia	8	14	12	-6	-42,86	-4	-33,3
	Ura	207	314	221	-107	-34,08	-14	-6,3
	Eraikuntza	1.624	1.759	1.901	-135	-7,67	-277	-14,6
	Merkataritza	2.452	2.881	2.294	-429	-14,89	158	6,9
	Garraioa	3.097	3.420	3.058	-323	-9,44	39	1,3
	Ostalaritza	2.729	2.826	2.657	-97	-3,43	72	2,7
	Informazioa eta komunikazioa	2.036	1.566	1.100	470	30,01	936	85,1
	Finantzak eta aseguruak	109	168	77	-59	-35,12	32	41,6
	Higiezinen sektorea	27	29	22	-2	-6,90	5	22,7
	Zientifikoak eta teknikoak	751	764	801	-13	-1,70	-50	-6,2
	Administraziokoak	3.080	2.662	1.980	418	15,70	1.100	55,6
	Administrazio publikoa	285	478	365	-193	-40,38	-80	-21,9
	Hezkuntza	1.179	1.209	1.244	-30	-2,48	-65	-5,2
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.376	1.687	1.274	-311	-18,44	102	8,0

Kontratuen erregistroa 2024ko otsailean

		Ots-2024	Urt-2024	Ots-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.505	1.462	1.053	43	2,94	452	42,9
	Beste zerbitzu batzuk	419	390	372	29	7,44	47	12,6
	Etxeetako jarduerak	83	105	69	-22	-20,95	14	20,3
	Lurraldez kanpoko erakundeak	0	0	1	0		-1	-100,0
	Guztira	26.853	28.469	24.347	-1.616	-5,68	2.506	10,3
Emakumeak	Lehen sektorea	91	60	36	31	51,67	55	152,8
	Erauzketa-industriak	1	2	2	-1	-50,00	-1	-50,0
	Manufaktura-industriak	1.856	2.258	1.774	-402	-17,80	82	4,6
	Energia	17	16	17	1	6,25	0	0,0
	Ura	33	37	35	-4	-10,81	-2	-5,7
	Eraikuntza	139	173	131	-34	-19,65	8	6,1
	Merkataritza	3.479	4.116	3.018	-637	-15,48	461	15,3
	Garraioa	686	833	706	-147	-17,65	-20	-2,8
	Ostalaritza	5.087	4.872	4.637	215	4,41	450	9,7
	Informazioa eta komunikazioa	1.362	1.202	791	160	13,31	571	72,2
	Finantzak eta aseguruak	143	171	125	-28	-16,37	18	14,4
	Higiezinen sektorea	53	48	56	5	10,42	-3	-5,4
	Zientifikoak eta teknikoak	840	845	876	-5	-0,59	-36	-4,1
	Administraziokoak	3.707	3.334	2.764	373	11,19	943	34,1
	Administrazio publikoa	602	598	504	4	0,67	98	19,4
	Hezkuntza	3.190	3.334	2.873	-144	-4,32	317	11,0
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	5.238	6.534	5.181	-1.296	-19,83	57	1,1
	Arte- eta jolas-jarduerak	977	1.056	823	-79	-7,48	154	18,7
	Beste zerbitzu batzuk	579	592	596	-13	-2,20	-17	-2,9
	Etxeetako jarduerak	1.052	1.197	1.197	-145	-12,11	-145	-12,1
	Lurraldez kanpoko erakundeak	1	4	2	-3	-75,00	-1	-50,0
	Guztira	29.133	31.282	26.144	-2.149	-6,87	2.989	11,4
Guztira	Lehen sektorea	483	400	439	83	20,75	44	10,0
	Erauzketa-industriak	17	10	9	7	70,00	8	88,9
	Manufaktura-industriak	7.334	8.645	7.210	-1.311	-15,16	124	1,7
	Energia	25	30	29	-5	-16,67	-4	-13,8
	Ura	240	351	256	-111	-31,62	-16	-6,3
	Eraikuntza	1.763	1.932	2.032	-169	-8,75	-269	-13,2
	Merkataritza	5.931	6.997	5.312	-1.066	-15,24	619	11,7
	Garraioa	3.783	4.253	3.764	-470	-11,05	19	0,5
	Ostalaritza	7.816	7.698	7.294	118	1,53	522	7,2
	Informazioa eta komunikazioa	3.398	2.768	1.891	630	22,76	1.507	79,7
	Finantzak eta aseguruak	252	339	202	-87	-25,66	50	24,8
	Higiezinen sektorea	80	77	78	3	3,90	2	2,6
	Zientifikoak eta teknikoak	1.591	1.609	1.677	-18	-1,12	-86	-5,1
	Administraziokoak	6.787	5.996	4.744	791	13,19	2.043	43,1
	Administrazio publikoa	887	1.076	869	-189	-17,57	18	2,1
	Hezkuntza	4.369	4.543	4.117	-174	-3,83	252	6,1
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	6.614	8.221	6.455	-1.607	-19,55	159	2,5
	Arte- eta jolas-jarduerak	2.482	2.518	1.876	-36	-1,43	606	32,3
	Beste zerbitzu batzuk	998	982	968	16	1,63	30	3,1
	Etxeetako jarduerak	1.135	1.302	1.266	-167	-12,83	-131	-10,3
	Lurraldez kanpoko erakundeak	1	4	3	-3	-75,00	-2	-66,7
	Guztira	55.986	59.751	50.491	-3.765	-6,30	5.495	10,9
Gizonak	<>	0	1	0	-1	-100,00	0	
	Zuzendaritza	80	114	91	-34	-29,82	-11	-12,1
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	4.512	3.506	2.977	1.006	28,69	1.535	51,6
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	3.061	3.215	2.749	-154	-4,79	312	11,3
	Administrazioko langileak	1.079	1.151	902	-72	-6,26	177	19,6
	Zerbitzuetako kualifikatuak	5.267	5.827	4.573	-560	-9,61	694	15,2

Kontratuen erregistroa 2024ko otsailean

		Ots-2024	Urt-2024	Ots-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	194	161	188	33	20,50	6	3,2
	Industriako kualifikatuak	2.650	3.094	3.065	-444	-14,35	-415	-13,5
	Operadoreak	3.327	3.512	3.169	-185	-5,27	158	5,0
	Kualifikatu gabeak	6.683	7.888	6.633	-1.205	-15,28	50	0,8
	Guztira	26.853	28.469	24.347	-1.616	-5,68	2.506	10,3
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	42	64	70	-22	-34,38	-28	-40,0
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	6.395	5.988	4.813	407	6,80	1.582	32,9
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	2.222	2.705	2.202	-483	-17,86	20	0,9
	Administrazioko langileak	1.900	2.079	1.839	-179	-8,61	61	3,3
	Zerbitzuetako kualifikatuak	11.303	12.380	9.882	-1.077	-8,70	1.421	14,4
	Oinarrizko kualifikatuak	16	14	7	2	14,29	9	128,6
	Industriako kualifikatuak	317	361	325	-44	-12,19	-8	-2,5
	Operadoreak	561	659	660	-98	-14,87	-99	-15,0
	Kualifikatu gabeak	6.377	7.032	6.346	-655	-9,31	31	0,5
	Guztira	29.133	31.282	26.144	-2.149	-6,87	2.989	11,4
Guztira	<>	0	1	0	-1	-100,00	0	
	Zuzendaritza	122	178	161	-56	-31,46	-39	-24,2
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	10.907	9.494	7.790	1.413	14,88	3.117	40,0
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	5.283	5.920	4.951	-637	-10,76	332	6,7
	Administrazioko langileak	2.979	3.230	2.741	-251	-7,77	238	8,7
	Zerbitzuetako kualifikatuak	16.570	18.207	14.455	-1.637	-8,99	2.115	14,6
	Oinarrizko kualifikatuak	210	175	195	35	20,00	15	7,7
	Industriako kualifikatuak	2.967	3.455	3.390	-488	-14,12	-423	-12,5
	Operadoreak	3.888	4.171	3.829	-283	-6,78	59	1,5
	Kualifikatu gabeak	13.060	14.920	12.979	-1.860	-12,47	81	0,6
	Guztira	55.986	59.751	50.491	-3.765	-6,30	5.495	10,9
ABLE	Gizonak	6.342	6.699	5.368	-357	-5,33	974	18,1
	Emakumeak	3.448	3.458	2.245	-10	-0,29	1.203	53,6
	Guztira	9.790	10.157	7.613	-367	-3,61	2.177	28,6
Pertsona-kopurua	Gizonak	19.732	21.767	18.619	-2.035	-9,35	1.113	6,0
	Emakumeak	20.359	22.375	18.972	-2.016	-9,01	1.387	7,3
	Guztira	40.091	44.142	37.591	-4.051	-9,18	2.500	6,7
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	16.518	17.656	15.571	-1.138	-6,45	947	6,1
	Batxilergoa	9.149	10.099	7.903	-950	-9,41	1.246	15,8
	LHko ikasketak	6.874	7.828	6.084	-954	-12,19	790	13,0
	Unibertsitate-ikasketak	7.351	8.276	7.762	-925	-11,18	-411	-5,3
	Atzerritarra	8.030	8.721	7.219	-691	-7,92	811	11,2
	Bertakoa	32.061	35.421	30.372	-3.360	-9,49	1.689	5,6
	<>	28	18	32	10	55,56	-4	-12,5
	Aberrigabea	36	55	41	-19	-34,55	-5	-12,2
	Europako Erkidegoa	543	542	468	1	0,18	75	16,0
	Erkidegokoa ez den Europa	604	670	631	-66	-9,85	-27	-4,3
	Txina	108	95	66	13	13,68	42	63,6
	Japonia	3	4	2	-1	-25,00	1	50,0
	Asiako beste herrialde bat	426	456	401	-30	-6,58	25	6,2
	Saharaz hegoaldeko Afrika	754	847	787	-93	-10,98	-33	-4,2
	Afrikako iparraldea	1.122	1.237	1.053	-115	-9,30	69	6,6
	Ipar Amerika	16	18	14	-2	-11,11	2	14,3
	Erdialdeko eta Hego Amerika	4.387	4.776	3.721	-389	-8,14	666	17,9
	Ozeania	3	3	3	0	0,00	0	0,0
	Atzerritarrak guztira	8.030	8.721	7.219	-691	-7,92	811	11,2